

MEMORIA

20
18

PROGRAMAZIOA
ZINEA ETA
IKUS-ENTZUNEZKOAK



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura



Agnes Varda, Nosferatu Zikloa

Ikus-entzunezkoen emanaldiak etengabe izaten dira Donostian urte osoan zehar, eta Donostia Kultura eragile publiko dinamizatzaile handiena da, ezbairik gabe, kopuruari eta askotarikoari dagokienez, dela antolatzaile gisa, dela orotariko kolektiboan laguntzaile gisa.

Horrez gainera, ondo asko sendotuta geratu da 2018an beste eragile batzuekiko koordinazioa, "pantaila publiko partekatua" kontzeptua ikusgai jartzearen bidez, Tabakalerako areto nagusian ikusi ahal izan denez. Han

modu koordinatuan egiten da Nosferatu zikloa azken urteotan. 2018an, arrakasta handia izan du **Zinea eta Distopia** izeneko zikloak, eta udazkenean, berriz, **Agnés Varda** zinegile frantsesari eskainitako atzera begirako garrantzitsua hasi zen. Ez dezagun ahaztu ziklo horiek Donostiara ez ezik harago ere iristen direla, lan-kidetza bideak baitira Valentziarekin (Filmoteka), Iruñearekin (Filmoteka), Gasteizekin (Montehermoso Kulturunea).


Donostia Kulturak 2018an diruz lagundutako Zinemaldien artean, **Dock of the Bay** dokumental musikalen zinemaldiaren beste edizio bat egin da; bai eta **Nazioarteko Itsaspeko 41. Zinema Zikloa** eta film laburrei eskainitako **Donoskino** ere. Berritasun bat aipatzeko, azaroan **FICA** jaio zen, **Nazioarteko Atletismo Film Festibala**, oso menu interesgarriarekin, ema-



Dock of the Bay, Kartela



Donoskino, Kartela



Fiz Puro, Maratoia. FICA

naldiak eta kirol munduko izen handi gonbidatuak konbinatuta.

Donostia Kulturak eta Real Sociedad Fundazioak sustaturik, berriz, **Korner** jaialdia sortu zen, Kultura eta Futbolari eskainia, zeinean zineak oso leku garrantzitsua izan baitu.

Antzoki Zaharrak bigarren aldiz hartu zuen **Beste Begiradak** jaialdia, haur eta gazteentzat egindako zine amateurrari eskainia. Etorkizuneko ikus-entzule eta sortzaileekiko lan hori egiten da, halaber, **Euskara Zine Aretoetara** programan ere. Tinkorekin itundutako programa da, eta milaka ikasle jartzen ditu pantaila handiaren aurrean ikasturte osoan zehar.

Helburu gisa edota beren mezua hedatzeko asmoz ikus-entzunezkoa erabili duten beste kolektibo izaera sozialagoko batzuei ere lagundu zaie: **Atzegi**, **Gehitu-Premio Sebastianen**, **Bideak Zabalduz** ekinbidea, **Manos ke rien**, eta **Emakumeen Etxea** (VII. Jardunaldiak Emakumeek egindako Zinemaz: Jane Campion).

Antzoki Zaharrak mendi-zineari eskainitako begirada hartu zuen **Club Vasco de Campingen** zenbait jarduerarekin (besteak beste, Menditour), bai eta, bigarren urtez jarraian, **Club de Creatibosek** Donostian egindako kongresuarekin batera emandako proiektzioa ere. **Kresala zineklubak** ere bere ohiko saria eman zuen urte hondarrean, film batekin batera. Eta EITB-rekin batera, **Gu, Laboa** dokumentalaren aurrestrenaldiko gala antolatu genuen Victoria Eugenia Antzokian.

Ez dauzkagu ahazteko **Bang Bang Zinemaren** bi hilez behingo proiektzioak Antzoki Zaharrean, zeinetan aretoa erabat betetzen baita esperientzia ludiko eta kolektiboa bizi nahi duten ikus-entzulez, film mitikoak, perfor-



A través del fútbol. Korner



El piano. Ciclo Jane Campion

manceak eta zozketak eskaintzeko, gurtia giro ezin hobean.

Beste programazio batzuei ere lagundu zaie: **Zinema Hondartzan** Aste Nagusian, **helduentzako ani-**

mazio-ziklo bat San Telmon, eta euskarazko filmen kultur banaketarako **Filmazpit** programaren jarraipena (2018an emanaldi berezia izan zen Euskaraldia zela-eta): horiek osatzen dute gure Zine Arloaren lan-urtea.

	Egunak	Saioak	Ikusleak euskarazko saioetan	Ikusleak gaztelerazko saioetan	Ikusleak ele biko saioetan	Ikusleak guztira
GUZTIRA		156	17.458	22.580		40.538
Nosferatu	24	24	484	2.336		3.320
Beldurrezko eta Fantasiazko Zinema Astea	8	36	2.320	7.836		10.156
Giza Eskubideen Zinemaldia	11	30	5.910	3.860		9.770
Dock of the Bay	4	8	0	2.286		2.286
Bang Bang	4	4	0	1.430		1.430
Tinko	26	26	7.226	0		7.266
Saio bereziak	24	28	1.478	4.832		6310